

Isuntza

etxebizitza

Aldaerak: Isuntzagoikoa / Isuntzaemetikoa

Ahozkoa: Ixúntza / Ixúntze / Ixúntze Goikóa / Ixúntze Goikié



43° 10' 28"

2° 35' 43"

Berriz Irudian / T. Angoíta

Eusko Jaurlaritzak monumentu historiko izendatutako baserri honen jatorria XVI. mendean kokatu behar dugu. 1669. urtean, *Ysunza* (1669, BAHF, A1263/32. or.) moduan erregistratuta aurkitzen dugu, eta izen berarekin aurkituko dugu XVIII. mende hasierako su-erroldan, hots, *Ysunza* (1704); 1796an, aldiz, *Ysunza de Suso* aurkitzen dugu, goialdean kokatuta dagoen baserria adierazi bezala ('suso' hitzak goiko adiera du). Ildo beretik, 1866an *Yzunzagoicoa* (DJE, 2/ 41. or.) aurkitzen dugu. XX. mendean aldiz, *Yzunce Emeticia* (1905,

BUA, 40. or.) eta *Izunza emeticoa* (1967, BUA, CE) aldaerak ezagutu dira. Lehenengoan goikoari erreferentzia egiten dio, eta besteak, ostera, *Isuntzabekoa* (**Ikus Isuntzabekoa**) etxeari. Berriztarren artean, *Ixúntza*, *Ixúntze*, *Ixúntze Goikóa* eta *Ixúntze Goikié* ahozko erak erabili izan dira.

Baserri etxe ederra, *Berrizbeitia* (**Ikus Berrizbeitia**) baserriaren arkitekturarekin lotura zuzena duena. Askotan aipatu dugun egitura du. Hiru gorputzez osatua, beheko solairuko erdian

### toponimia

Mendebaldeko toponimian oso arrunta da isun- hitza, Abadiñon, gertu, Isundegi etxea dugu eta Tribiñun eta Gordexolan Isuntza. Isun hitzak bi adiera ditu, arrunta den "multa" eta Nafarroan "itxitako lur eremua". Dena dela adiera hori ez dator bat isun osagaia duten leku askorekin eta hori dela eta beste aukera izan daiteke osin hitzaren aldaera izatea. Bigarren osagaia ugaritasuna adierazten duen -tza atzikia da.



*Isuntza / Berriz Irudian*

atarte zabala duena, egurrezko dintel baten babesean, eta aldamenetan, harrizko gorputzekin. Ohikoa den moduan, leiho bana dauka hauetan, harlandu ederrez inguratuta, eta eskumakoak hegia ere molduratua du, leihoburuko inskripzioarekin batera. Atartearen zabalera dela eta, euskarri moduan ordena toskanarreko koloma erabili zuten. Bigarren solairua eta ganbara egurrezko egituraz egin ziren, tarteko adreiluzko hormekin, eta hauetan leihoak eta txori-tokiak zabaldu zituzten. Segurutzat, alde-rik aldeko balkoia izan zuen ganbaran, baina gaur egun desagertuta dago. Fatxada nagusiari

erreparatu ezker, berehala konturatuko gara eskuma aldeko beheko gorputza zabalagoa dela eta beheago, sotorako atea dauka, harrizko dintelduna. Bitxia da ikustea adreilu grapatuak erabili zituztela haritzeko egurrak estaltzeko. Bi isurialdeko teilatua dauka, miru buztana deritzona gehituta, eta bere hegal zabalari eusteko egurrezko besoak erabili zituzten. Amaitzeko, inskripzioak dioena, tondo baten barruko giltza bien alde banatan: *“IHS MR (tondoa) A 1678”*, hau da, Jesus eta Mariaren anagramekin batera, data.